Behin betiko onespena ematea kanpaldiak arautzen dituen udal ordenantzari
Behin betiko onespena eman zaionez kanpaldiak arautzen dituen udal ordenantzari, onartutako ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, denek jakin dezaten, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.
Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Justizia Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salan, 2 hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Horrek guztiak ez du eragozten egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso ere aurkeztea.
Lagran, 2023ko urriaren 18a
Alkatea
URTZI GAINTZARAIN GONZALEZ DE DURANA

KANPALDIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Udalerri honetara kanpatzera etortzen diren pertsonen kopurua asko hazi denez, neurriz kanpo handitu da karabanak, furgonetak edo kanpadendak erabiliz udal lurretan eta administrazio batzarren lurretan egiten diren kanpaketen kopurua, eta horrek segurtasun eta higiene arazoak ekarri ditu, eta, ondorioz, egoera arautu beharra dago.
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko Legearen 49. eta 84. artikuluek eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 55. artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, udal honek bere udalerriko kanpaketak arautzen ditu.

1. artikulua. Kanpatzeko debekua
Erabat debekatuta dago udal lurretan eta udalerriko administrazio batzarren lurretan (jabari publikokoak nahiz ondarekoak izan) kanpatzea, karabanak, furgonetak, ibilgailuak, kanpadendak edo beste edozein bitarteko erabiliz.
Debeku honetatik kanpo geratzen da autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak udalaren kirol instalazioen ondoan horretarako gaitutako aparkalekuan aparkatzea, hura arautzen duen ordenantzaren arabera, bai eta San Bartolome eremuan kanpatzea ere, baldin eta udalak horretarako baimena ematen badu.

2. artikulua. Kanpaketen iraupena
Debeku hori hautsiz kanpatu dela egiaztatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Ertzaintzari, kanpatzen ari direnei berehala alde eginarazi diezaien.

Aprobación definitiva de la ordenanza municipal reguladora de las acampadas
Habiéndose aprobado definitivamente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de las acampadas, se hace público su texto íntegro para su general conocimiento y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley de Bases del Régimen Local.
Contra el presente acuerdo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime pertinente.
En Lagrán, a 18 de octubre de 2023
El Alcalde
URTZI GAINTZARAIN GONZALEZ DE DURANA

ORDENANZA REGULADORA DE LAS ACAMPADAS

Debido al gran aumento de personas que vienen a este municipio a acampar, ha aumentado de forma desproporcionada la cantidad de acampadas en terrenos municipales, y de las juntas administrativas con caravanas, furgonetas o tiendas de campaña, con los problemas de seguridad e higiene que ello conlleva, para lo cual es necesario regular esta situación.
En uso de las facultades concedidas por los artículos 49 y 84 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local de 2 de abril de 1985, y artículo 55 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, se regula por este ayuntamiento las acampadas en el territorio de su municipio.

Articulo 1. Prohibición de acampadas
Queda totalmente prohibido realizar acampadas, ya sea con caravanas, furgonetas, vehículos, tiendas de campaña o cualquier otro medio en los terrenos municipales, y de las juntas administrativas sean de dominio público o patrimoniales, existentes en el municipio.
Queda excluida de la presente prohibición el estacionamiento de autocaravanas y vehículos vivienda en el lugar de estacionamiento al efecto habilitado junto a las instalaciones deportivas municipales de acuerdo con la ordenanza reguladora del mismo, así como la acampada en la zona de san bartolomé siempre que medie autorización por parte del ayuntamiento.

Articulo 2. Duración de las acampadas
Comprobada la existencia de acampada infringiendo la presente prohibición, se procederá sin más dilación a dar cuenta a la Ertzaintza a fin de que procedan al desalojo inmediato.

C.I.F.: P-0103200-B • Calle Herrería, 1 • Teléfono: 945 378 059 • Fax: 945 378 241 • www.lagran.org

3. artikulua. Finka partikularretan kanpatzea
Partikularren jabetza pribatuko finketan egiten diren kanpaketek, 1. artikuluan aipatutako araudia alde batera utzi gabe, jabeen aldez aurreko baimena izan beharko dute, eta, gainera, kanpaketei buruzko araudia bete beharko dute. Hala ez bada, partikularrak agintari eskudunari salatu beharko dio, eta horrek ez du udalaren esku hartzea mugatuko.

Articulo 3. Acampadas en fincas particulares
Las acampadas que se realicen en fincas de propiedad privada de las personas particulares, sin perjuicio de la normativa citada en el articulo 1, deberán contar con la autorización previa de las personas propietarias, y atenerse, además, a la normativa reguladora sobre acampadas. En caso contrario, la persona particular deberá denunciarlo a la autoridad competente, sin merma de las acciones que pueda enervar el ayuntamiento.

4. artikulua. Zehapenak
Debekatutako lekuetan kanpatzeagatik egindako arau hausteak Alkatetzaren bidez zehatuko dira, eta 150 euroko isuna jarriko da ibilgailu, atoi, karabana edo kanpadenda bakoitzeko.

Articulo 4. Sanciones
Las infracciones por acampar en los lugares prohibidos serán sancionadas por medio de la Alcaldía, mediante la imposición una multa de 150 euros por cada vehículo, remolque, caravana o tienda de campaña.

5. artikulua. Indarraldia eta indargabetzea
Ordenantza hau behin betiko onesten denean eta haren testu osoa udaletxeko iragarki taulan eta ALHAOn argitaratu eta gero jarriko da indarrean, eta indarrean iraungo du berariaz aldatu edo indargabetzen den arte.

Articulo 5. Vigencia y derogación
La presente ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicada íntegramente en el en BOTHA y permanecerá vigente hasta su modificación o derogación expresa.

C.I.F.: P-0103200-B • Calle Herrería, 1 • Teléfono: 945 378 059 • Fax: 945 378 241 • www.lagran.org